

Ona Jakinmin

Translated by: Amaia Etxebarria



INSTITUTE
OF NEXT
BY INFONOMIA

Ona Jakinmin

Original idea: Alfons Cornella

Text: Gina Clotet · Illustrations: Sílvia Morilla · Design: Curro Astorza

Translated by: Amaia Etxebarria

Zuk bai zuk Ona, jakinmin ona!
Ona dut izena eta amak jakinmin
handia dudala esaten du.

Ona Jakinminona, esaten dit.

Oso gustoko dut neure buruari
galderak egitea, nahiz eta
askotan erantzunik aurkitu ez.

Hala ere, zergatik galdetzen
duzun bakoitzean, ziur nago
erantzun bat aurkituko duzula.

Ona Jakinmin




1.

Egun berria hasteko dutxa hartzen
dudan bitartean, burura datorkit...

Zer egingo ote du
ustubideko munstroak ni
ur beroa irteteko itxaroten
nagoen bitartetan galtzen
den ur guztiarekin?

Ona Jakinmin



2.

Kalera irten eta pentsatzen dut...

... espaloian itsatsita
dauden txikleak xaboi-
burbuilek lez hegan egitea
erabakitzen dutela eta nire
patinak oso ariiiiiiiinnnnnnn
laban egiten duela.

Ona Jakinmin



3.

Ondo da, klasean jesarrita egon behar da,
baina holan nire ideiak lurrera itsatsita daudela
igartzen dut.

Eta hegan joaten
utziko banie?

Eta ibili eta ibili egingo
balute?

Ona Jakinmin



4.

Amak jaka zergatik galdu dudan
galdetu dit. Aurkitu egin behar
dudala dio.

Eta jakak ni aurkituko
banindu?

Ona Jakinmin



5.

Egun osoa motxila
lepoan dela...

Barraskiloek ere
min dute lepoan?

Ona Jakinmin



6.

Aitonak asko du kontatzeko...

Eta bere historia guztiak
potetxoetan sartuko banitu
galdu ez daitezzen?

Ona Jakinmin




7.

Nire amonak eta mugikorrak ez
dute elkar ulertzen.

Eta nire amonaren
mugikorra gaztetan
erabiltzen zuen
telefonoaren antzekoagoa
izango balitz?

Ona Jakinmin



8.

Aitona-amonek dirua
eman didate.

Diru nahikoa daukadanean
teleskopio bat erosiku dut.

Bitartean... Zelan egingo
dut hau dibertigarriago?

Ona Jakinmin



9.

Harriak zenbatu ditut, pertsonak
zenbatu ditut, baita txoriak ere. Ez zait
ezer gelditzen kontatzeko...

Eta itxarotea aspergarria
izango ez balitz?

Imagina dezakezu?

Ona Jakinmin



10.

Lurra garbi egotea gustatzen zait
etxean eta kalean.

Zuk ikusi duzu, nik
ikusi dut.

Nork batuko du?

Ona Jakinmin



11.

Ez dut zuhaitzik gabeko mundu bat imaginatzen...

Eta haziak eramango
bagenitu beti poltsiko
zulatuetan?

Ona Jakinmin




12.

Helduek bakarrik erabakitzen
dute gure etorkizunari buruz?

Umeok etorkizun gehiago
daukagu.

Eta galdetuko baligute?

Ona Jakinmin




13.

Ziur nago etxeko-lanak pertsona
aspergarri batek sortu zituela.

Eta matematika ikastea
lehiaketa bateko
protagonista izatea
bezalakoa balitz?

Ona Jakinmin



14.

Nire lagun Cloek bezala laguntzen
didan ahizpa nagusi bat izatea
gustatuko litzaidake.

Eta adoptatuko banu?

Ona Jakinmin



15.

Nire amak ere ikasi zuen bibolina
Shorofsky maisuarekin.

Jotzen dudana musika
zahar-zaharra da.

Klaseak ere hala izan
behar dira?

Ona Jakinmin



16.

Probagela batean arropa jantzi-erantztea
tortura bat da.

Ispilutxo, ispilutxo: nork
ikusi dezake arropa zelan
geratzen zaion galtzerdi
bakarra ere kendu gabe?

Ona Jakinmin



17.

Ezinezkoa da inork ez eramatea
nire jantzia.

Nik neuk egitea erabaki dut.

Ona Jakinmin



18.

Aita larrituta dago. Garbigailua
apurtu egin da.

Aditu batek konpontzen
erakutsi ahal izango lidake.

Trukean, nik “etxeko lan
bustiak” konpontzen
erakutsiko nioke.

Ni ere aditua naiz!

Ona Jakinmin



19.

Nire ahizpa triste dagoenean,
txupeteak dena konpontzen du.

Eta egongo balitz
gurasoentzako txupetea?

Ona Jakinmin



20.

Eguna amaitzen doa.
Eskola bakarrik sentituko da
gu etxera goazenean, ziur.

Eta orduan ateak
zabalduko bagenitu
bizitza sartzeko?

Ona Jakinmin





Original idea: Alfons Cornella

Text: Gina Clotet

Illustrations: Sílvia Morilla

Design: Curro Astorza

First Edition: January 2018

Translated by: Amaia Etxebarria

Ona Jakinmin

Zuk bai zuk Ona, jakinmin ona!

Ona dut izena eta amak jakinmin handia dudala esaten du.

Ona Jakinminona, esaten dit.
Oso gustoko dut neure buruari
galderak egitea, nahiz eta
askotan erantzunik aurkitu ez.

Hala ere, zergatik galdetzen
duzun bakoitzean, ziur nago
erantzun bat aurkituko duzula.



INSTITUTE
OF NEXT
BY INFONOMIA

